

## AIPAMEN KLASIKOAK AXULARREN GERO LIBURUAN

*Patxi Salaberri Muñoa*

“Aipamenen ehiztaritza ere ez da egiteko alferra, inork ez baitu deus ezerezetik ateratzen, beti behar izaten baitira gidariak eta sostenguak”

(Mitzelena 1981, 285)

Argumentatzeko modu erretorikoa —dialektikoa ez bezala— edukiaz gain dauden elementuez ere arduratu izan da beti, argumentu motarik erabiliena eta, ziurrenik, osoena den “bilduma” izeneko horren adibide garbia delarik. Dituen bost partetatik (proposizioa, arrazoa, baieztapena, apaingarria eta ondorioa) lehenengo biak eta azkena dialektikak eskuarki jorratu ohi dituenak badira ere, erretorikak eta batik bat oratoria sakratuak oso kontutan hartzen dituzte onepen eta apaingarrien arloak

Berbaldi batean zehar demostratu nahi den arrazoiaren aldeko argumetuak areagotzeko, beraz, baieztapenaren bidea erabili ohi da normalean, hartako formarik ezagunenak exenpluak eta idazleen lekukotasunak direlarik. Jakina, elementu hauek diskurtsoan barrena aipatzen den argumentu edota puntu bakoitza “frogatzeko” ekartzen dira oro har. Sustatzeko frogak horiek, eta beste-lako arrazoiak, exenpluak eta konparazioak inolaz ere ahaztu gabe, *auctoritas* arlokoak (Eskrituretakoak, Elizako guraso eta doktoreak, filosofoak,...) izan ohi dira nagusiki. Berauen bidez, ezaguna da, inori gai batean aitortzen zaizkion jakituriak eta iritziek frogak-balioa hartzen dute garatzen ari den berbaldian.

Ildo horretatik, bada, aipamen izenekoak autoritate argumentua bideratzeko tresnatzat hartu izan dira betidanik. Baina, horrezaz gainera, zerbait gehiago ere aitortu izan zaie historikoki, hots, baieztapenaren arloko elementu horiek, idatzitako zein ahozko diskurtso bati dagozkion entzule-irakurlearekiko hurbiltasuna, errealitatearen zentzua, praktikotasuna eta, nola, ez, erudizio-kategoria ere ematen dizkiotela hain zuzen.

Metodologikoki, horrelako berbaldiak esparru erlijiosora egokitzeko aha-lerin teoriko eta praktikoetan zinez maisua izan zen Luis Granadakoak garbi utzi zuen bidea: “Primeramente pues debe juntarse mucho y vario caudal de cosas, que sugerirá la varia lección, así de nuestros autores, como tambien de

los gentiles. A lo cual ayudan maravillosamente, no solo las sentencias, sino tambien los ejemplos, los símiles, los apotegmas” (Granada *Retórica*, 611a).

Hauxe izango da, beraz, oratoria sakratuan ihardungo dutenek eramango duten jokabidea: aberastasuna aipamentean eta erreferentzietan luzatu nahi den mezua errazago finkatzeko eta xedeak hobeto erdiesteko.

Baina aipamenen berezko garrantziaz gain, ezin ahaz daiteke aztertu nahi den autorearen maila intelektualaz eta prestakuntzaz (eta, bide batez, garaiki-deenaz) ere mintzatzen direla.

Guztiarekin, bada honetan ere arazo interesgarriak. Martine De Reu-ren hitzek azpimarratzen duten bezala (1):

“Les citations ou paraphrases méritent également d’être étudiées, car elles nous fournissent des indices concernant l’horizon intellectuel du prédicateur. Or, les citations et paraphrases ne suffisent pas à cette fin; il reste notamment le problème des sources intermédiaires” (Reu 1993, 334).

Esan gabe doa Axularrek ere eurrez darabilen formula dela aipamenena, bai gaiak ekartzeko, bai garatzen ari den doktrinaren berresgarri moduan. Horregatik *Gero*-ko aipamenen arloan luze mintza liteke Axularrek erabilitakoez edota aipatutakoez, izan ere liburuaren zati zabal bat aipamen-exenpluen “menpe” baitago. Halere, ezinbestekoa da aipatzea honetan ere Axular bere garaia-aren semea dela, berak ezagututako eta ikasitako jokabidea antzematen dela haren obran, orduko garaikide adierazgarri gehienenean bezalatsu.

Teknikoki, *Gero*-ko aipamen huts direnak (2) latinez ematen direnez gero, itzulpen batez lagundurik agertzen dira, itzulpen gehitu batez hain zuzen. Gehitze hori anplifikazioaren bidez egin ohi du urdazubiarrak. Tratamendu hori dela eta, zinez esan daiteke zortzi ehun aipamenetik gora dituen liburu honen erdia inguru aipamenen menpe dagoela, izan ere, kapitulu batzuk aipamen eta exigenpluen arteko jostura baten fruitu egokitua baino ez baitira (ikus lehenengo kapitulu biak, esaterako).

(1) Orobat, ildo horretatik doaz behiala Farinellik honako aipamenen egoerarako gogorarazi nahi izan zuen pasartea, non Bossueten hitzak ere agertzen baitira: “Scrittori sacri e scrittori profani fanno a chi più cita nomi di illustri antichi. «Il y a bien des Auteurs qui apportent dans leurs Ouvrages des passages d’Homere, de Pindare, d’Aristote, de Ciceron, de Demosthenes, de Tite Live, quoiqu’ils ne les ayent jamais lûs; rien n’est plus ordinaire que cette conduite dans la République des Lettres»- *La Coterie des Anti-Façonnier*, Amsterdam, 1716, p. 143” (Farinelli 1908, 107-108).

(2) Metodologikoki, eta arrazoi praktiko-didaktikoak zirela medio, “aipamen” kontzeptuaren barnean bi eratako elementuak sartu ditugula: batetik, identifikatu-erreferentziatu gabe agertu aren, “aipu”-tzat hartu beharrekoak ziren guztiak, testuan latinez emandakoak, hain zuzen (aipamena +; erreferentzia + eta erreferentzia —), eta, bestetik, zalantzarakoak seguruenik, “aipamen zuzena” izan gabe, alboan erreferentziaren bat zeramatenak (beraz, aipamena —; erreferentzia +). Ez da aiputzat hartu, jakina, ez aipamenik ez erreferentziarik ez zutenak, ez eta testuan egokiro tartekatutak ziren “erran komunak” edota sententzia bezalakoak ere, nahiz eta kasu bietan maiz haien literatur jatorria ere garbi atzeman ahal izan dugun.

## 1. AIPAMEN ITURRIEN ONDOZKAPENAZ

Aski garbi esan daiteke bai teologikoki nola kronologikoki Axularren *loci*-ak eta, ondorioz, aipameneren sistema bera Melchor Canoren berrikuntza teologikoak (Bataillon 1979, 724-725) jaso zuenaren ondokoak direla. Haren arabera markatuko dira handik aurrera literatura erlijiosoan erabiliko den iturri eta aipamen jerarkia orokorra, Axularrek berak baliatuko duena.

Canoren liburuak Errebelazioan eta tradizioan aurki daitezkeen fede-iturrien katalogo moduko bat agertzen du hamar *loci* mota bereizten dituelarik:

1. Eskritura saildunen autoritateari dagozkionak.
2. Kristo eta apostoluen tradizioarenak (ahoz aho etorriak).
3. Eliza katolikoarenak.
4. Kontzilio orokorrenak.
5. Eliza erromatar eta apostolikoarenak.
6. "Sanctorum veterum" direlakoarenak.
7. Teologo eskolastikoenak.
8. Arrazoi naturalarenak.
9. Filosofoenak ("qui naturam ducem sequuntur").
10. Giza-historiarenak ("humanae auctoritas historiae").

Ikusten denez lehen bost iturriek Eskritura, tradizioa eta Elizaren magisterioa hobesten dituzte.

Planteamendu honek garrantzizko aldakuntzak ekarri zituen ordurarteko eskema orokorrera, besteak beste eskolastikoen nolabaiteko alboratze bat eta kristauak ez ziren autoreen erabilera. Horren arrazoiak, berriro ere, giroaren zitua izan ziren neurri handi batean.

Alde batetik, garaiko humanismoaren izpirituak estilo landua erabiltzera eta iturrien azterketara bultzatuko du Cano, eskolastika berantiarren sofisma eta argumentuei aihur izango dielarik. Era berean, Canok Elizako Gurasoen baliatuzera joko du, zeren eta, Curtiusek dioen bezala, "la lectura de la literatura de la Reforma y las discusiones del concilio de Trento, en el cual participó Cano en 1551 por encargo de Carlos V, lo llevaron a la conclusión de que el método escolástico no era adecuado para la defensa de las verdades del dogma católico, y que había que volver a los más antiguos escritores de la Iglesia" (Curtius 1976, 768)

Bestalde, Canoren planteamenduen arabera, kristautasuna eta dogma indartzeko historia eta literatura profanoak (paganoa barne) aztertuzera bultzatuko

da. Izan ere, kultura errenazentistaren eraginez, arras zabaldua zegoen jakintza arlo guztiak (gehienak) ezagutzeko beharra. Jakina, honek irakurketa pagano eta profanoen erabileraren zilegitasuna planteatzera eramaten zuen bereziki ardua erlijiosoak zeukana. García Berriok adierazten duen bezala:

“Conectado con este t3pico, como una de sus m3s importantes secuelas, se abra paso en la preocupaci3n de nuestros ret3ricos renacentistas la cuesti3n de la licitud de enriquecer la *oratio* con testimonios, citas y adornos de poetas, incluso de consentir su entrada en los tratados de ret3rica y predicaci3n” (García Berrio 1980, 38-39).

Areago, ezin da ahaztu Axularrek aipatzen dituen San Agustinek, San Jeronimok, Bedak (3) eta beste zenbaitek dotrina kristaua tradizio paganoarekin hobetzen saiatu zirela, izan ere, hori baitzen kristautasunaren unibertalismo bo-kazioa garatzeko eta edonorentzako mundu-ikuskera gisako bat bihurtzeko bide bakarra.

Salamancako giroan, beraz, Axularrek horrelako iturri amalgamarik xurgatu zuen, besteak beste Canoren *De locis theologicis* (Salamanca 1563) esparru hartan izan zuelako lehen oihartzuna eta eragina. Ez da ahaztu behar XVI. mendean Salamancak edo, hobe esateko, hango unibertsitateak teologia arloan Europan zeuzkan protagonismoa eta berrikuntzen irradiazio-ahalmena. Horrezaz gainera, eta anekdota esanguratsu gisa, ezaguna da bertan grekerazko irakasle eta Rectorica izeneko katedraren jabe izandako Brozasekoak baieztatua zuela ezinezkoa zela Testamentu bien misterioetan barneratzea Grezia eta Erromako poetak, oradoreak eta historialariak ezagutu gabe (cfr. Asensio 1981, 51).

Ikusten den moduan, literatura klasikoa kristaukuntzaren osagarri gisako elementu bat bezala planteatzen zen, osagarri erretorikoa zein morala edonola ere. Beraz, garbi esan daiteke kristau tradizioan emandako urratsez gainera, humanismoak berak ere ezinbesteko ikusten dituela erreferente greziarrak eta latinoak Eskrituren zentzua egokiro ulertu ahal izateko.

Ildo horretatik abiatu bide zen Axularren prestakuntza erlijioso-literarioa eta haren obran isuriko ziren *domicilia omnium argumentorum theologorum* ere horren islada baino ez ziren izango.

*Gero* liburuan barrena irizpide horiek sistematikoki aplikatuko diren arren, badira horren guztiaren lekuko moduan har daitezkeen esaldi esanguratsu bi, argumentu teologikoen jerarkiazioa praktikan jartzeaz gain, teorikoki ere erakusten dutenak. Hona hemen lehena, azalean bertan agertzen dena:

“Eskritura Saindutik, Elizako Doktoretarik eta liburu debozinozkoetarik.”

(3) *Gero*-n behin bakarrik aipatzen den Beda hau (48 or.) ez da Urkixok pentsatzen zuen Natalio Beda teologoa (†1536), Beda Agurgarria baizik (672-735).

Bigarrenak zertxobait gehiago zehazten du *domicilia* delakoaren esparrua, argumentazio-prozeduran etengabe azalduko den *auctoritas delakoaren* jerar-kizazioari kreaturen lekukotasunaren erabilgarritasuna ere erantsiko zaiolarik:

“Eskritura Sainduak, Elizako Doktorek, lehenagoko Ientilek, eta are zeruko, aireko, eta lurreko gauza guztiek ere kondenatzen dute alferra, eta emaiten aditzera [...]” (*Gero*, 37).

## 2. AUTORE “JENTIL”-AK ORATORIA SAKRATUAN

Trentokoaz geroztik eliza katolikoak bultzatu erreformak predikari eta eliz-gizonen prestakuntzan jarri zuen azentua, prestakuntza erlijiosoan eta erreto-rikoan hain zuzen. Horrek, besteak beste, erretorika klasikoaren arloko autore garrantzitsuenak ezagutarazi zituen eta, haiekin batera, hizkuntzaren eremuan eredu izan zitezkeen filosofoak, poetak eta historialariak. Klasikoak, beraz, eza-gunak eta irakurriak izan ziren, askotan ideologiakide ez gertatu arren.

Hori zela eta, oratoria sakratuaz edota erretorika eklesiastikoari buruz zi-harduten liburuetan ez zen beti aholkatzen haien irakurketa eta erabilera. Hori bai, horrelakoan aipamenik sermoietara ekartzekotan, espreski aipatzen zen “jentil” horien lekukotasunaz egokiro baliatzeko premia, zuhurtziaz eta betiere egiaren berretzaile eta ornatu edo aberasgarri gisara alegia. Oso arrakastasua izan zen Fray Diego Valadesen *Rhetorica Christiana* (Perusa, 1579) liburuan, esaterako, honako aholku hauek aurki daitezke: “aprovéchese de la licencia que le dan San Jerónimo, San Agustín y San Basilio para leer los libros gentiles (1.<sup>a</sup>, VI), pero no tome de ellos sino lo que se acomoda a nuestra religión, y no se familiarice mucho con ellos, porque no pase de las palabras a las obras (1.<sup>a</sup>, VII)” (apud Olmedo 1960, cii-ciii).

Aipamen hauetarako aholku orokorra, beraz, “parce et raro” (Herrero Salgado 1993b, 283) izan ohi zen, autore jentilekiko inolako atxikimendurik erakus ez zedin. Valadesek berak dioen bezala, “a los poetas no conviene citarlos, si no es que se trata de una sentencia breve y muy notable. De los filósofos gentiles se puede citar lo que venga muy a cuento, teniendo cuidado de no parecer que se interpreta la Escritura al modo racionlaista, sino conforme a la fe y tradiciones de la Iglesia, sin traspasar nunca, como dice el Sínodo Trulano, las fronteras de la fe ni las santas tradiciones de los Padres” (apud Olmedo 1960, cv-cvi)

Axularren garaikide gisa azaltzen den Terrones del Cañoren iritziz (eta planteamenduetan ere ildo beretsutik doaz bi-biak), egile profano zenbaitek idatzitakoaz balia daiteke bakarrik egiazko gauzak direnean (historia naturala, politikoa, etab.), eta ez asmatuak edo ustezkoak hain zuzen. Filosofoen artean aukera ere murrizta da:

“y lo mesmo digo de dichos de filósofos, como Aristóteles, Plutarco, Sócrates, Diógenes y Séneca; aunque de Séneca nunca sobra nada, ni he leído autor que con menos palabras dixese mayores sentencias, y que más aprieten y tapen la boca a un entendimiento” (Terrones del Caño 1960, 85-86).

Besterik da errealtatea nolabait mozorratzen edo denean:

“Pero, si la humanidad es fingida con jeroglíficos y fábulas, hemos de andar parcísimos. Lo de los jeroglíficos ha cundido de manera que hay predicadores que los componen de su cabeza [...] Un jeroglífico o dos, cuando más, en un sermón, si son de Alciato o Pierio Valeriano u otros autores simbólicos, pueden pasar” (Terrones del Caño 1960, 86).

Poesiari dagokionez, irizpidea ere oso zehatza da:

“se han de traer pocas veces versos de poetas en el sermón, si no fuere algún versico muy a propósito, porque el exceso en esto enfría el auditorio, y no ganan nada los cascos del predicador, especialmente si dixese alguna cosa de romance, que desto se ha de guardar, si no fuere tan grave que edifique [...] Pero otras coplas, aunque vengan a propósito, no se han de decir así trobadas como son, sino desleírlas casi en prosa, pero de manera que en alguna palabra se entienda que fué verso” (Terrones del Caño 1960, 87).

Arcago:

“Sobre todo advierto que nunca se ha de citar el autor del verso, a lo menos Ovidio, Marcial [...] u otros así que trataron materias vanas y lascivas [...]; aunque, si fuesen Virgilio, Homero, Horacio, podríanse nombrar con algún encogimiento y un poco de desdén, y no enjaguándose la boca con ellos, como si citáramos a San Jerónimo” (Terrones del Caño 1960, 87).

Axularrek ere horrelaxe jokatu du oro har bere liburuan, nahiz eta Ovidio eta Martzialen kasuetan —ausardia ala ezagutza falta?— erreferentziak eta egokiegia ez diruditen kalifikatiboak ere dedikatzen dizkien, aurrerago ikusiko den bezala.

### 3. AIPAMEN KLASIKOEN ARAZOA GERO-N

Korronte errenazentistak sortutako joera klasikozalea dela eta (4), ez da harrizkoa *Gero* liburuan barrena autore klasikoek hartzen duten garrantzia, ikusten den bezala, klasiko askotxoren aipuz zipriztindurik baitago obra gutzia.

(4) “La corriente renacentista se inaugura con la difusión en gran escala de los textos clásicos latinos, así paganos como cristianos; las obras de Cicerón y Séneca, de Salustio y Tito Livio, de Virgilio y Ovidio, de Lactancio y San Jerónimo corren de mano en mano y son ávidamente leídas y comentadas. Sigue a esta primera fase del movimiento la difusión de las obras de los autores griegos antiguos a través de versiones latinas realizadas al estilo clásico; una selección de heleenistas de gusto refinado vierten en latín pulcro las epopeyas de Homero y los diálogos de Platón, las historias de Jenofonte y los textos filosóficos de Aristóteles, las cartas de San Basilio y los tratados de orígenes, con el principal objeto de hacer accesibles sus bellezas literarias a todo el mundo culto” (Carreras y Artau - Carreras y Artau 1943, 612).

Guztiarekin ere, (eta honetan datza aipamenen arazo larrinetako bat) Axularrek sarri askotan aipatzen dituen pasarte batzuk beste autoreren obratan ere agertzen dira autoritate argumentu gisa. Seneka eta Plutarko, esaterako, elkarrekin aipatuak agertzen dira Erasmo, Vives edota Montaigneren obretan. Hortaz, klasikoak Axularrenean eurrez eta garaikideen obretan bezalatsu agertzen direla baieztatu badaiteke ere, mediatizazio edo bitartekaritzaren arazoa azalerratzten da berehala, hots, sarartuak klasikoak zeharka baino ez ote zituen eza-gutzen planteatzen duen hipotesia.

Aipamenen agerpen anitza ikusirik, alabaina, badirudi ohiko bihurtu zai-gula Axularren aipuak elkarrizketa-gai bezala aurkezterakoan, behiala Mitxel-lenak esandakoaren haritik abiatzea:

“Axularren garaioek —Pizkunde arokoek alegia, bera ere, berandu xamar jaiogatik, horietakoa baitzen— antzinako Greko eta Erromarrak hautu zituz-ten maisutzat, eta ez hizkuntza gaietan bakarrik. *Autore zahar haiek norknahi bezain ongi ezagutzen zituen Axularrek*, eta haiengandik hamaika gai, esaera, ipui eta gertakari hartu zituen eta euskaraz eman” (Mitxelena 1954: 1988, 40; gurea da letrakera etzana).

Hori baino ez da Narbaitzek jaurtikitakoa: “Gain gainetik eskolatua, [Axu-larrek] aintzineko idazlen lanak jakituz irakurtuak zituen eta beretuak” (Nar-baitz 1956, 325), edota berrikiago P. Urkizuk zioena:

“[...] garbi aski agertzen baita [...] ez zituela ezagutzen bakarrik Aristoteles eta Seneka, Plauto, Plutarko, Marzial, Diogenes Laerzio, Juvenal, Jon Kri-sostomo, Agustin Hiponakoa, Martin Azpilikuetakoa eta beste autoreen zatiak itzulikatu baitzituen lerdengi, Fray Luis de Granadaz gain” (Urkizu 1989, 21-22).

Nolanahi ere den, Mitxelenak berak zuhurrago eta zehatzago jokatu zuen arazoa berriro planteatu zitzaionean:

“Tampoco puede esperarse, como es natural, que las abundantes citas de las Sagradas Escrituras, de los Santos Padres y de autores clásicos que contiene el libro de Axular sean todas de primera mano” (Mitxelena 1960, 73).

Gure ustez ere, zalantzan jarri beharko litzateke lehenengo baieztape-naren ildotik ibili direnen iritzia, ez baitago bat ere garbi Axularrek egile zahar / klasiko horiek ezagutzen zituenik. Edo hobeto esanda, zerbait garbi egotekotan, zeharkako ezagutza litzateke, hau da, Axularren kasuan aipa-menak beste autore batzuen obretatik jasoak izango ziren. Eta horixe baino ez dirudi saratarrak berak aitortu zuen harako hark, hots, testuok “Escritura saindutik, Eliçaco Doctoretaric eta liburu debocinozcoetaric” atereak direna zioenak alegia.

#### 4. AIPAMEN KLASIKOEN LEKUKOTASUNA

Luze joko luke liburuan agertzen diren autore klasiko guztiak aztertzeak edota Axularrek izan zuen errezeptibitatea finkatzeak (5). Edozein modutan, hasteko eta arazoa dagozkion parametroen barnean kokatzeko aski izan liteke *Gero*-n gehien aipatuak diren bizpahiru autore klasiko garrantzitsuren kasua hona ekartzea (6).

Guketz, eta autore klasikoaren erreferentzien adibide gisa, Axularrentzat eskuragarrienak edo bide zirenak (eta maizago eta zuzenago aipatuak direnak) baino ez ditugu hona ekarri nahi, hots, Plutarko, Ovidio, Horazio, etab. Inolaz ere, guztien gainetik Seneka genuke, eta ez bakarrik Axularrek haren obraz egiten duen aipamen kopuruagatik. Hark garatu zuen filosofia eta kristau aszetikaren esparruan izan zuen eraginkortasunak lehen eskuko lekuko bihurtzen dute estoikoa hemen planteatzen zaigun arazoa argitzen hasteko (7).

##### 4.1. Senekaren kasua

1. Senekaren aipamenak dira Axularrek autore klasikoaren artean maizen egiten dituenak. Horrez gain, beste guztietan ez bezala, honako egile honekin erreferentziak ere ematen dira, nahiz eta atal honetan mintzatu beharko dugun haien zuzentasunez.

Edonola ere, atal honetan Seneka genuke aipamenen ildoak aztertzeak autorerik egokiena, izan ere bereak baitira fidagarrienak, baten bat egotekotan, aipamenak jatorrizko iturrietatik hartutakoak izan direnentz jakin ahal izateko.

Gauza jakina da gure artean oraindik burutzeke dagoen pentsamenduaren historiak ezinbesteko duela idazle eta pentsalari klasikoaren eraginaren azterketa. Ildo horretatik, Axular izango genuke, ezpairik gabe, kanpoko eragin kultural eta filosofikoen paradigma, bera baita iturri horiek esplizitoki aipatzen dituen

---

(5) Aipamenen artean, Lafitte sailkapen moduko bat argitaratu zuen, antzinate klasikoko idazleei dagokienez honako hauek ematen dituelarik: Poeta kristau bakarra: Ausonio "dont il ne cite d'ailleurs qu'un vers". Eskribau paganoren artean: poetak (aipatuak: Ovidio eta Juvenal; guxtiago aipatuak: Horazio, Martzial eta Lukano. Haiein batera, Plauto eta Terencio). Anekdotak eta ateratzeko: Plutarco eta Herodoto batez ere. Eta bigarren maila batean honako hauek: Salustio, Eliano, Aurelio, Aulo Gelio eta Josefo. Historia naturaleko datuak Plinio Zaharraren liburuetatik. Filosofoak edo moralistak: Seneka batik bat. Ondoren Zizeron, Diogenes Laertzio eta Aristotele lotozke.

Zerrenda honi, dena den, izen batzuk falta zaizkio (Estazio, etab.).

(6) Axularrek aipatzen dituen autore klasikoak grekerazko eta latinezko literaturako ospe-tsuenak diren arren, nabarmena da Virgilio bezalako poeta baten falta *Gero* liburuan.

(7) Adibide bat baino ez den arren, esanguratsua da arras Axularren garaikide batek Senekaz zuen iritzia. Gurearen garaikide kultu gehienak bezalaxe, Baltasar Gracián-ek "[...] consideraba a Séneca [...] al lado de Homero, Esopo, Luciano, Apuleyo, Heliodoro, Ariosto Boccacini y Barclay, como *única autoridad filosófico-moral* digna de mención, fuera de Plutarco" (Blüher 1983, 520).



lehenbiziko idazlea eta, hortaz, garantia minimoenekin aztertu daitekeen lehen.

Ezaguna da Axularren prestakuntza akademiko-kulturala estatu espainoan burutua izan zela, Salamancan bereziki. Hori dela eta, lan honetan, Senekaren obrari dagokionez, nolako paralelismoak dauden Espainian izandako errezepzioaren eta Axularrek egindakoaren artean aztertuko da. Bide batez, hipotesiren bat planteiatuko da jakin ahal izateko ea Axularrek zuzenean jaso zuen edota zeharkako irakurketaz baliatu zen bere liburua egiteko.

2. Seneka autore ez-kristauen artean gehien aipatua da Axularren obran, hogeita hamar bat aldiz denetara. Nolanahi ere, Axularrek Senekaren irudi orokorrik eskaintzen ez badu ere, obran zehar erakusten duen joeragatik zinez pentsa daiteke “jentil” moduan baino gehiago haren ustezko “kristautasuna” onartuz baliatzen dela hartaz.

Senekaren obrez egiten den aipamen kopuru honek, berez, badirudi zer-bait erakutsi beharko lukeela, ez baitira berdinak inoiz agertutako egile baten presentzia edota maizen agertzen denarena. Izan ere, presentzia jori horrek Axularrentzako interesgarrien eta aberatsen izan ziren egileak adieraziko liguke.

Bi mailatan azter liteke honako arazo hau, beraz. Batetik, interesgarria litzateke nola antzematen den Senekaren eragina *Gero* liburuaren planteamendu orokorrean aztertzea, bereziki atal konkretu batzuetan. Bestetik, informazio erabakiorra eman lezake, Axularrek berak Senekaren hitzak ekarriz egiten dituen aipamenei bidez aztertzeak, klasikoen erabilpena norainokoa izan zen susmatzeko aztarnak jaso baikenitzake horretatik. Guk, erretorikaren *inventio* atalak horrela eskaturik, bigarren honi helduko diogu hemen.

3. Probabilitate kalkuluen arabera, Axularrek *Gero* burutzeko autore zaharren libururik irakurri eta erabili izan balu, badirudi gehien aipatzen diren egileenak izan beharko zuketela, eta ez bakanka aipaturikoak (hauek beste edozein liburutatik har baitzitezkeen, inondik ere).

Probabilitate kalkulu horien arabera, beraz, Seneka izango genuke adibiderik fidagarriena, haren liburu garrantzitsuenak aipatzen baititu Axularrek:

*Epistolak*: 1.a (hirutan aipatua), 13.a, 18.a (bitan), 23.a, 24.a, 27.a, 43.a, 58.a (bitan), 61.a eta 82.a.

*De ira*: 7 aipamen.

*De brevitae vitae* : 3 aipamen.

*De benefic.*: bi aipamen.

*Naturalis quaestiones*: aipamen bakarra.

*De moribus*: (apokrifoak) aipamen bakarra.

*Proverb.*: (apokrifoak) aipamen bi.

a) *De ira*:

Espero zitekeen bezalaxe, Kaligularen aurkako liburu honetatik jasotako aipamen guztiak (7 gehi zalantzazko bat, denetara) *Gero* liburuan kolera eta etsaigoaren kalte eta erremedioak tratatzen dituzten kapituluetara mugatzen dira, zehatzago esateko honako kapitulu hauetara: 20 (bi aipu), 21, 23 (hiru aipu), 26, 27 eta 29.

*Gero*-n dauden aipamenen artean badira batzuk oso esanguratsuak eta Axularrek Senekarenetik zuzenean ez zituela atera adierazten digutenak (8).

*Gero*, 281 or. (*De Ira*, 2. lib., 36): Axularrek Senekarena balitz bezala ematen digu *De ira*-n garbi asko Quinto Sextio-rena dela agertzen den aipamen bat. Gainera, Senekak berak garbi adierazten du hori. Testu erkaketan ere bada guk erabilitako edizioarekin aldaketaren bat:

*Quibusdam profuit aspexisse speculum, perturbavit eos tanta mutatio sui.*  
*Quibusdam, ut ait Sextius, iratis profuit aspexisse speculum. Perturbavit illos tanta mutatio sui* (Seneca, *Opera omnia*, I, Lipsiae, 1832).

Horretaz aparte, ezin ahaz genitzake, hiru liburu baino ez duen *De ira* dela eta, Axularrek zazpi erreferentzietan egiten dituen hankasartzeak. Maizegi eta gehiegi, agian, liburua eskuartean izan duen batentzat:

Orrialdea	Axularrek	Jatorrizkoa
299	lib. 2, cap. 34	2. lib. , 29. kap.
313	lib. 2	3. lib.
316	lib.	2. lib. , 28. kap.

316 or.: Aelianus-en testu ezezagun batetik jasotzen omen du Axularrek koleraren kontrako erremedio musikala zerabilen Climas delako baten adibidea. Hurrengo aipamena Senekaren *De Ira* izanik, hobe eta egokiago zukeen aurrekoa ere liburu honetatik ateratzea. Hain zuzen ere, a) erremedio musikalaz baliatzen zen pertsonaia baten adibide bat ere badagoelako; b) Senekaren lekukotasuna Aelianusena baino garrantzitsuagoa zelako (nahiz azken hau “berriagoa” izan); d) aipamena zehatzago eman zezakeelako (*De Ira*-tik jasotako beste guztiak bezainbeste bederen), eta, bukatzeko definitiboagoa deritzogun argudioa, e) Senekaren aipameneko pertsonaia, inork ezagutzen ez bide zuen “Climas ceritçan” hori baino garrantzitsuago, hurbilago eta adierazkorragoa zelako: Pitagoras, alegia.

(8) Gerta zitekeen Axular Senekarenaz ez gogoratzea eta, horregatik, Firmiano Laktantziorenaz baliatu behar izatea. Baina bitxikeria eskerra zatekeen!

Testuak erkatuz gero, bada alderik ere:

*Poterit non irasci, statim utique [...].*

*Poterit non statim irasci: utique [...]* (Seneca, *Opera omnia*, I, Lipsiae, 1832).

Eta beste pasarteetan ere aldeak ez dira gutxi guk erabilitako edizioarekin konparaturik:

*Magnum remedium iræ est mora* (Gero, 299).

*Maximum remedium est iræ, mora* (De Ira 2, 28).

*Ergo ab ira abstinendum est, sive par est qui lacessendus est sive superior, sive inferior. Nam cum pari contendere anceps, cum superiori furiosum et cum inferiori sordidum* (Gero, 332)

*Ergo ira abstinendum est, sive par est qui lacessendus est, sive superior, sive inferior. Cum pare contendere, anceps est: cum superiore, furiosum; cum inferiore, sordidum* (De Ira 2, 34)

Etc., etc.

Kontrasteak areagotzeko, azpimarratzekoa da 301. orrialdean dagoen aipamenaren kasua. Axularrek Laktantzioren erreferentzia eginez (“Lact. de ira cap. 18”), Senekak berak ere dakarren adibidea ematen digu, baina desberdintasun batekin: Senekak Sokratesen ezpainetan jartzen duena, honako honetan Axularrek Platonen laguna zen Arkita (Arquitas) Tarentoko filosofo pitagorikoaren ahoan uzten du, Zizeronek (*Tusc. IV, 78*) eta Valerio Maximok (IV 1, Ext. 1) jasotakoaren ildotik.

Planteiatzen diren galderak, hortaz: Senekaren obra irakurri eta gero, materiale hori guztia kontrastatu egin ote zuen Axularrek eta datuak autore gehienek ikuspuntutik eman?, honelako txikikerien (aszetika liburu baterako ez-pertinentea baita datu hori) jakitun zen Axular? Aipamen horretarako bakarrik jo zuen Laktantzioren obrara? Ala, logikoagoa dena, Senekaren *De ira* eta Laktantziorena bera ere beste autorek esandakotik ezagutzen zituen soil soilik? Noski, badira honetaz pentsatzeko arrazoirik, ezen Arkita filosofoaren aipamenaren ondo-ondotik Senekak jasotzen duen (*De ira* III, 12 kap.) Platonen adibidea papereratzten batigu Axularrek, nondik hartu duen adierazi gabe. Ez dirudi normala denik liburu bakar batean jarraian datorrena bi liburutatik hartzen ibiltzea.

b) *Epistolak*: (= *Epistola moralak Luziliori*).

Salbuespenak albuespen, *Epistolak* orohar aski erreferentziaturik agertzen direla esan genezake, hau da, epistolari dagokion zenbakia ondo ematen du Sarako erretorak.

Azpimarragarria da epistolen erabilera nagusiki liburuaren lehen herenera mugatu izana. Egia esan, 45. kapituluaren txertatutako aipamena kenduta, beste

guztiak honako kapitulu hauetan biltzen dira: 2, 4 (3 aipamen), 12 (bi aipu), 13, 14 (3 aipamen), 15, 20 eta 21. kapituluetan (9).

Nolanahi ere den, aipamenak liburu erlijiosoetan usuen (topiko gisara, alegia) agertzen diren horietarikoak dira. Ikus ditzagun banan-banan:

Lehen Epistolaren 2. ahapalditik (10) jasoa den aipamen honek (*Gero*, 159-160 or.), Senekaren izenez landa ez dakar inolako erreferentziarik.

Epistola beretik (*Ep.* 1, 3) jasoko da gutunak duen pasarterik garrantzitsuena eta, horregatik hain zuzen, ezagunena (*Gero*, 162 or.). Scarpac-en iritziz (1961, 27), esaldi honetara bilduko litzateke gutunaren mamia.

Denboraren balioaz eta aprobetxamenduaz diharduen epistola honetako lehenengo aipamen bi hauek 12. kapituluaren ematen ditu Axularrek bere liburuan, hots, “Nola guerotic guerora ibiltceaz, galtcen dugun dembora” izeneko kapituluaren.

Axularrek gaizki erreferentziatzen duen lehenengo epistola honen azken esaldia (11) (1, 5, alegia), berriz, XIII. kapituluaren txertatuko du, “Gaztetic çahartcera penitencia luçatcen duenaz” delakoan.

Gutunaren muina edota azken erreflexioa (ez derrigorrez azken lerroak!) jasotzeari ateratzen dion gustoa 13. eta 18. epistoletan ere antzeman daiteke, hots, 13, 17an eta 18, 15ean. Modu berean jokatzen du Axularrek 23, 11 eta 43, 4-5 epistoletan ere.

Nabarmentzekoa da 58, 23 epistola zatian Axularrek egin duena, gorago ikusitako beste baten antzekoa (ik. *De Ira* 2. lib., 36) baita egiletza kontuan burutzen duen mutazioa. Izan ere, urdazubiarrak Senekarenak bailiren ematen ditu Senekak berak Heraklitoren ezpainetan ipintzen dituen hitzak: “In idem flumen bis non descendimus” delakoa. Egia da, dena den, ondoko esaldia Senekarena dela baina ez mezuaren muina laburbiltzen duena. Horrela agertzen da jatorrizkoan:

*Hoc est quod ait Heraclitus: “In idem flumen bis non descendimus” Manet idem fluminis nomen, aqua transmissa est* (Seneca, *Opera omnia*, III, Lipsiae, 1832).

Bestalde, ez dirudi jatorrizko testutik hartua denik Axularrek ematen duen “Otium sine litteris, est vivi hominis sepultura” = “Letra gabeco aisia, deus eztaquienaren alferqueria, guiçon biciaren hobia da, eta sepultura” (42 or.).

(9) Erabilera honek, aipatu kapituluaren arteko erlazio tematikoa adierazteaz gain, nolabaiteko filiazio lotura ere erakutsi lezake eta aski lotura bide doa *Gero*-ren egituraz esango denarekin.

(10) Ohi bezala, hemendik aurrera Epistola eta ahapaldien identifikaziorako zenbakiak honela emango dira: 1, 2 (lehen zenbakia epistolarenari dagokion bitartean, bigarrena ahapaldiarenari).

(11) *Gero*-n 2. Epistolatik hartua dela esaten da.

Senekaren obretan horrela agertzen zaigu: *Otium sine litteris mors est, et hominis vivi sepultura* (*Opera omnia*, III, Lipsiae, 1832) (12).

Horretaz aparte, erreferentzia ere gaizki ematen da 28. epistola dela esaten denean, zenbakiak aldaturik hain zuzen. Izan ere, 82. epistolaren 3. pasartea da

*Ep.* 24, 20 delakoak interes berezia du inguruko elizdorre zenbaitetan agertzen zen “vulnerant omnes, ultima necat” esaera famatua pasarte honen bukaerako hitzekin zerikusirik duelako. Egia da baina, Trentoz geroztik erloju publikoetan lelo hori jartzeko ohitura hedatu honek ez duela Axularren irakurketen berririk ematen.

Ezer gutxi erants genezake ondoko pasarte hauei buruz: 27, 2; 58, 22; 61,2.

Nolanahi ere den, badirudi beharrezkoa izan daitekeela gutxienez oharkizunen bat egitea pasarte hauetan guztietan gertatzen diren aldaketez:

*Quem mihi dabis qui aliquod praetium tempori ponat qui diem aestimet?* (*Gero*, 159-160).

*Quem mihi dabis, qui aliquod pretium tempori ponat? qui aestimat?* (*Ep.*, 1, 2).

*Omnia mi Lucile aliena sunt, tempus autem nostrum est* (*Gero*, 162).

*Omnia, mi Lucili, aliena sunt: tempus tantum nostrum est* (*Ep.*, 1, 3).

*Vitanda est ira, non solum moderationis causa, sed sanitatis* (*Gero*, 279).

*et ideo ira vitanda est, non moderationis causa, sed sanitatis* (*Ep.* 18, 15).

*Non enim tantum minimum in fundo, sed pessimum* (*Gero*, 181-182).

*Non enim tantum minimum in imo, sed pessimum remanet* (*Ep.* 1, 5).

*Non interest, hic affectus, ex quam magna causa nascatur, sed in qualem perveniat animum. Sicut ignis non reffert quam magnus, sed quo incidat: nam etiam maximum, solida non receperunt, rursus arida et corripit facilia, scintillam quoque fovent usque in incendium* (*Gero*, 286-287).

*Nec interest, ex quam magna causa nascatur, sed in qualem perveniat animum. Sic ignis non refert quam magnus, sed quo incidat. Nam etiam maximum, solida non receperunt: rursus arida, et corripit facilia, scintillam quoque fovent usque in incendium* (*Ep.* 18, 15).

*Quidam vivere tunc incipiunt, quum desinendum est: si hoc iudicas mirum, adiciam quod magis admireris: quidam ante vivere defecerunt, quam inciperent* (*Gero*, 185).

*Quidam tunc vivere incipiunt cum desinendum est: si hoc iudicas mirum, adiciam quod magis admireris: quidam ante vivere desierunt quam inciperent* (*Ep.* 23, 11).

*Quid prodest recondere se et oculos hominum auresque vitare? Bona conscientia turbam advocat, mala autem in solitudine anxia est, atque sollicita. Si honesta sunt quae facis, omnes sciant, si autem turpia, quid prodest, neminem scire, cum tu scias?* (*Gero*, 435-436).

*Quid autem prodest recondere se, et oculos hominum auresque vitare? Bona conscientia turbam advocat, mala etiam in solitudine anxia atque sollicita est.*

(12) “Otium sine litteris mors est et hominis vivi sepultura. Epist. 83” (Granada, *Collectanea...* 168 or.).

*Si honesta sunt, quæ facis, omnes sciunt: si turpia, quid refert neminem scire, quum tu scias?* (Ep. 43, 4).

*Ante senectutem curavi ut bene viverem in senectute ut bene morerer* (Gero, 186).

*Ante senectutem curavi, ut bene viverem: in senectute, ut bene moriar* (Ep. 61, 2).

Gogoratu, bestalde, batzuetan aipamenak ez direla osorik ematen, edo, hobeki esateko, Axularrek ematen dituen itzulpen-moldaketetan, latinez ez dakartzan jatorrizko testu zatiak ere itzultzen dituela. Hau da, adibidez, Senekaren aipamen batekin egiten duena (*Epistola* 24, 30):

Hala erraiten du Senekak: *Quotidie morimur, quotidie enim demitur aliqua pars vite* (Senec. epist. 24). Egunoro hiltzen gara, zeren egun oro gure bizitzeari zenbait poxin eta parte gutitzen eta edekitzen baitzaika. Eta are hazten eta handitzen garenean ere, gure bizia ttipitzen eta laburtzen da (Gero, 63 or.) (13).

d) *De brevitae vite* liburutik jasotako 3 aipamen hauek 3., 4. eta 12. kapituluetan tartekatu dira Gero-n. Hiru horietatik bi gaizki edo desegoki erreferentziatuta daude, ongi dagoen bakarra 9. kapituluko delarik (izatez, azken honen erreferentzia zuzena hau litzateke: 9. kap., § 1).

Gaizki dauden artean, Gero-n 50 orrialdean dagoen aipamenari 13. kap., § 1 erreferentzia erantsi behar zaion bitartean, liburuan 13. kapitulutik hartua dela adierazten duen aipamena honela zuzendu behar da: 15. kap., § 5.

e) *De benefic.*: aipamen biak 2. eta 45. kapituluetan agertzen dira Gero-n. Liburu hau oso irakurria izan zen Erdi Aroan. Ezaguna da Abelardok, Vicente Beauvais-ek eta Dantek berak ere literatur florilegioetan tartekatu zituzten zenbait pasarte. Santo Tomasen kasuan, bestalde, ezaguna da Senekaren "maxima" asko karriatu zituela bere teologia moraleko liburuetara.

45. kapituluaz azaltzen den aipamenari dagokionez, erreferentzia ondo emanda dago (De Benef. 7. lib., 21. kap.) eta pasadizuak kapitulu guztia betetzen du. Edonola ere, aipamen hutsa baino zerbait gehiago da, hots, Senekak "exenplu"-tzat ematen du istorioa.

f) *De moribus*: liburutik jasotzen den aipamen bakarra Gero liburuan 45. kapituluaz kokatzen da. Ez bide da Senekarena liburu hau (14).

(13) Latinezko aipamenean agertu ez arren, azken esaldia ere Senekarena da: "Morimos cada día; cada día, en efecto, se nos arrebata una parte de la vida y aun en sus mismo período de crecimiento decrece la vida". Ismael Roca Meliá-ren itzulpenetik jasoa: *Epistolas morales a Lucilio*, Madrid, Gredos, 1986, 201-202 or.

(14) "[...] tratado *De moribus*; atribuido por unos a Séneca y por otros a Martín Bracarense, y que tampoco pertenece a ninguno de los dos" (Carreras y Artau - Carreras y Artau 1943, 635 or.).

g) *Naturalis quaestio*: aipamen bakarra *Gero* liburuan 12. kapituluaren tartekatuta da. Badu gaur egun zabaldu den jatorrizko bertsiorekin alderik, hemen ikusten den bezala:

*Neque quod futurum est meum, neque quod fuit.*

*Nec quod futurum est meum est, nec quod fuit* (*Naturalis quaestio*. VI. lib., § 32, 10 *Opera omnia*, editio stereotype, Lipsiae 1832, V. vol., 161 or.; berdin Codoñer Merino [ed.] 1979).

Bestalde, ez dirudi arrazoirik dagoenik Axular estudio fisikoetan barrena abiatzeko interesatuta egon zitekeela pentsatzeko. Aipamen bakar hau, hortaz, beste nonbaitetik hartua litzateke.

h) *Proverb.*: aipamen biak 23. kapituluaren txertatu dira *Gero*-n. Senekari egotzi zitzaion liburu hau gaztelaraz agertuko zen XV. mendean honako tituluarekin: *Proverbios de Séneca llamados vicios y virtudes*. Edozein modutan ere, badirudi obra hau ez dela Senekarena, nahiz eta “bajo el aval de su nombre (Senekarena, alegia) gozó a la sazón de extraordinario crédito” (Carreras y Artau - Carreras y Artau 1943, 620 or.; ikus, halaber, Bataillon 1979, 50 or.).

#### 4.2. Beste autore zenbait

Horrezaz gainera, *Gero*, kultura klasikoko autore ospetsuenak zuzenean erabili eta eskuztatu gabe idatzi zuela adierazi dugun hipotesi hau areagotuz ikusiko genuke beste autore klasiko zenbaiti begirada bat emango bagenie. Denak azaltzeko luze bezain antzu joko lukeenez gero, hona hemen horietariko batzuk:

##### 1. OVIDIO

Ovidioren aipu aitortuak (15) sei baino ez dira obran zehar, guztiak honela bana daitezkeelarik: *De remedia amoris*, *De tristibus*, *Fasto*, *El*.

*De remedia amoris* liburutik hartutako hiru aipuak Erdi Aroko bibliografian ohiko bihurtuko diren topikoak dira. Are gehiago, horietariko bi bederen Curtius-ek (1976) tradizio latindarraren jarraipenaren ezaugarritzat hartzen ditu, literaturan etengabe errepikatuak izan direla adieraziz:

a) “*Otia si tollas, periere cupidinis arcus*” = “Baldin quen baitzatçu alferqueriac galdu dirateque Cupidoren arcuac, eztu nehor bere tragacéz çaurtucu?” (379 or.)

b) “*Quæritur, Ægistus quare sit factus adulter? in promptu causa est, desidiosus erat*” = “Galdeguiten da, cergatic cen Egisto adulterioan? Prest da arraçoïña; ceren alferra baitcen” (381 or.)

---

(15) “Aitortu” hitza erabiltzean berariaz uzten dira aparte agian bereak izan daitezkeenak baina erreferentziarik gabe datozen bestelako aipuak.

Azken aipamen honek, dena den, badu eragozpenik, zeren bigarren partea beste modu batean idatzi bide zuen Ovidiok: “causa est in promptu: desidiosus erat” (Curtius 1976, 135).

Bestalde, ezagun da *De remedia amoris* liburutik jasotako hirugarren aipua (“Qui non est hodie, cras minus aptus erit” = “Egun gai eztena, bihar gutiago iñanen da”) aski zabaldua izango zela ondoko mendeetan. Adibide gisa, behin baino gehiagotan Axularren lanarekin erkatzeko aipatua izan den Venegas-en *Agonia* izeneko liburuan ere gaztelerauz aurki daiteke Ovidioren:

“El que hoy no se apareja, más pereza tendrá mañana que hoy”, erreferentzia gisa Venegasek honako hau dakarrelarik: “Ovid., II de Séneca”(Agonia..., 125b)

Baina agian harrigarriega da aszetika liburu batean Ovidioren obra hain “axolagabeki” erabili izana. Axularrek Ovidioren liburuen mamia eta mezua ezagutu izan balu, askoz ere ezkutuago utziko zukeen aipamena Axularrek. Hark erreferentzia gisa ematen duen tituluaren (*De remedia amoris*) atzean da-goen liburua irakurri duenak badaki ez dela hain zuzen Axularren “erremedio”-en ildoko tratamendu aszetikoa.

Antzeko zerbait esan beharko genuke “E I.2” delakoaz (*Gero*, 350): *Epistolae* izenekoetan emakumezkoen psikologia azterketa azaltzen da, idazki erotiko samarrak nonbait aszetika liburu baterako.

Horiez guztiez gainera, bada erreferentziatugabeko aipamenik ere, harri-garriena Platoni eragotzitako bat delarik: haren *de amore* liburutik hartutakoa omen den bat (*Gero* 352 or.). Guk dakigularik, Platonek ez du izen horretako libururik. Aipamen hori, begibistan dago, Ovidioren obratik jasoa da: *Amores* 3. lib., 3. kap.

“Ezkutatze” horren arrazoa ez dakigun arren, esplikaziorik inoxoena Axularrek aipua, erreferentzia akats eta guzti, beste nonbaitetik jasoa zuela genuke, eta ez modu zuzenean. Dena den, bihurriagoa litzateke pentsatzea Axularrek —Ovidioren obra irakurri ala ez, berdin dio!— nahita ezkutatu zuela informazioa, izan ere bazuen motiborik urdazubiarrak haren obra batzuk —*Ars amandi* liburua, esaterako— zeharo debekatuta zeudela jakiteko.

## 2. HORAZIO

Horazioren pare bat aipamen baino ez du egiten Axularrek, eta biak oso ezagunak eta erabiliak, klasikoaz geroztikako literaturan topiko bihurtutako horietarikoak.

Bata honako hau da: “Nos numeri sumus, frugere consumere nati” = “Gu contu gara, gurequin contuz guehiago, baiña gaiñeracoan, ezcara deusetaco, lurreco fruituen, eta onen iateco baicen” (38 or.)



Alejo Venegasek bere *Agonia* ... delakoan (174 or.) “nos numerus sumus” dio, eta honela itzultzen du: “no somos más los baldíos de para augmentar el número de los hombres y comer pan de balde”.

Bistan da ezaguna eta erabilia zena.

Bigarrena ezagunagoa da: “Quo semel est imbuta recens, servabit odorem testa diu” = “Eltceac luçaro eduquitecen du, berrian hartcen duen usaiña eta cutsua” (87 or.)

Kintilianok berak dakar nondik hartua izan den adierazi gabe:

“Porque naturalmente conservamos lo que aprendimos en los primeros años, como las vasijas nuevas el primer olor del licor que recibieron” (Quintiliano, *Instituciones*, 12).

Erreferentzia ere ondo emanda dago *Gero*-n: 2. epistola. Lehen liburukoa dela gehitu beharko litzateke, zehatzagoak izateko.

### 3. PLUTARKO

Oro har, esan daiteke Plutarkoren presentzia 27. orrialdetik 32. eraino mugatzen dela nagusiki (13 aipamenetatik, 8 aipamen aitortuak).

Alabaina, badirudi “Etsaietaric atheratcen den probetchuaz” (27 or.) ize-neko liburutik atereak direla horietako erreferentzia asko eta asko.

Horrezaz gain, erreferentzia guztiak ez daude beti ondo, hala nola 32. orrialdean “vita Cato Censor” delakotik hartua omen dena ez da Plutarkorenean inondik ere agertzen, baina bai hurrengo ahapaldikoa, nahiz eta garrantzizko aditza aldatu eman (“damutu zela” adierazi beharrean, “beguiratu cela” esaten du Axularrek).

Axularrek kontatzen dituen pasarteen zabalkundea handi izan da literatura guztian barrena, besteak beste, Likurgoren txakurren kasua. Nolanahi ere, he-dapen horrek bestelako biderik ere izan zezakeen, ezaguna baita —Plutarkok berak aitortzen duelako Likurgoren biografia hasieran— bere obrak egiteko erabili iturri mordoa (Aristotele, Apolodoro, Tizino, Xenofanes, Erastotenes, Simonides, Aristokrates, Kritias, Teofrasto, Dioskorides, etab.).

Bestalde, ezin ahaz daiteke Axularrek behin bakarrik —eta oker, gainera!— aipatzen duen Zonaras autoreak (*Gero*, 318 or.) eurrez erabili zituela Plutarkoren obrak eta beste hainbat klasikorenak, eta Plutarkoren adibideak horrelakoetatik ere etor zekizkiokeela urdazubiarrari.

### 4. AULO GELIO

Aulo Gelio behin bakarrik aipatua da *Gero* guztian. Horrezaz gainera, haren liburutik hartutako pasartearen erdian latinez agertzen den zatia Plutarkoren obratik jasoa da, alboan dagoen glosari kasu eginez gero (ik. *Gero*, 388 or.).

Egia esan, lehenengo begiradan, A. Gelioren erreferentzia egin ondoren ez dirudi Axularri beharrezkoa zitzaionik Plutarkorena ekartzea, A. Geliok badakarrelako latinezko esaldia eta, areago, grekerazko bertsioa lagun, zorrotzago baiteritzo kontalariak jatorrizko hizkuntzan esandakoari itzulpenari baino.

Geliok bere obra burutzeko Plutarkorenak ere erabiltzen dituela kontutan hartuz gero (ikus, esaterako, 20. lib. 8. kap.), aski garbi pentsa daiteke Axularrek (ala editoreak?) orrialde horretan erantsi zuen "Plutarc. in Aphohothe" hori soberan dagoela, hurrengo aipamenaren errepikapen hutsa baino ez dela. Hori, gainera, ahaztu gabe orrialde berean Bibliatik jasotako aipamen baten erreferentziaren falta nabari dela.

Bestalde, A. Geliok obra horretan bertan azaltzen duenez, pasadizo hau Sozion izeneko filosofo peripatetikoaren *Amaltearen adarra* liburutik hartua da.

Pasarte honen garrantzia eskaintzen dituen elementu bietan datza: latinezko aipu zuzena emateaz gain, egoeraren testuinguru guztia ere prestatzen da

Agian interesgarriena, Axularrenera iristean aipuak jaso duen moldaketa-aldaketa da. Axularren erreferentzia gisa jartzen den Gelioren liburuaren arabera, Demostenes ezkutuan joan zen Lais-engana honen faboreak eskatzera. Soilik Greziako aberatsik aberatsenek besarka zezaketen emazte eder honek eskatu zion dirutzak (talentu bat, hamar mila drakma) izutu eta konfunditu zuen peripatetikoa eta ez bestek. Ondoren esan zituen hitzek zerikusi gehiago zuten xahu zezakeenarekin, arimaren osasunarekin baino. Jakina, tradizio kristauak, Axular barne, etsenplua deskontestualizatu ("Demostenes Philosopho handi hura emazte haren aldetic iragaiten cela") eta Geliok emandako itzulpen angibua erabiltzen du, zeinek, bide batez esateko, ez baitu grekerazko esaldi pragmatikoarekin lotura handirik.

Ezin garbi jakin Axularrek irakurria zuenentz, ezta beste nonbaitetik hartua ote zuen ere. Badirudi, dena den, bere idazlanerako aipamen bakar bat baino askoz ere gehiago erabil zezakeela anekdota-baso honetan sartu izan balitz.

Edozein modutan ere, aipuaren erreferentzia gaizki emanda dago, ez baita I. liburuko 3. kapitulutik jaso, 8. kapitulutik baizik. Horrelakoetan, beraz, beti pentsa daiteke autoreak jasotzean izandako konfusioa edo gaizki transkribatutako zenbakia edo editorearen irakurketa gaiztoa edo ... beste mila arrazoi dagoela anabasarako. Baina, honelakoetan, aipamena bakar bat baino ez denean eta honenbeste arazo dagoenean, zinez pentsa daiteke erreferentzia ematen duenak ez duela obraren erabilera zuzena egitean jaso, zeharkako obrak erabili dituela nonbait klasiko haren berri izateko eta haren aipamenez baliatzeko.

## 5. JUVENAL

Juvenalen aipuak bi baino ez dira. Bata *Satira* izenekoetatik hartua eta bestea, orrialde bereko hurrengo lerroan dagoena, identifikatu gabe.

*Satirak* obratik jasoa ondo erreferentziaturik dago, hots, 6. liburutik jasoa baita aipamena eta Axularrek izen propiorik aipatzen ez duen arren, “Erromaco andre” hura Mesalina da, Klaudioren emaztea (ik. *Gero*, 385 or.).

Harrigarri gerta dakioke gaurko irakurleari erreferentzia hau osorik eman da aurkitzea eta ez, esaterako, “isildua”. Kontutan hartzen bada seigarren satira honetan emakume biziotsuen irudikapenak (moralki edifikagarriak ziurrenik, baina irudietan gordinegiak) egiten direla hasieratik bukaeraraino, irakurketa-rako gonbidapen zuzen eta ausartegia zitekeen “konbertiarazi” nahi zen irakurlearentzat. Eta zer esanik ez Kontrarreformaren giroan murgildurik zegoen apaiz baten irakurgaia izan zela adierazten zuenagatik.

## 5. KLASIKOEN ERREZEPZIO MEDIATIZATUAREN HIPOTESIA

Ikusten denez, askotxo dira okerrak aipamen-erreferentzietan, gehiegi beharbada Axularrek berak zuzenean jasoak izateko.

Autore zenbaitek diotena diotela, honetatik guztitik ondorioztatzen denagatik badirudi Axularrek bere liburua egitean ez zituela Senekaren obrak eta ez beste autore klasikoenak ere erabili. Zail da hori kasu guztietan demostratzen, baina liburu batzuetan oso ondo ikusten da bestelako iturriak —kultura klasikoa mediatizatu, beraz— erabili zituela Urdazubikoak.

Horrezaz gain, ez genuke aipatu gabe utzi nahi Axularrek berak liburuaren azalean egin zuen aitopena, “topoi” bat baino gehiago dena. Gure ustez —eta orain arte adierazitakoak horixe bera demostratzen duelakoan gaude—, Axularrek bere liburua “Eskritura saindutik, Elizako Doktoretarik eta liburu debozinozkoetarik [...] bildua” zela zioenean, egia baino ez zuen esan.

Edonola ere, honek ez luke ukatuko urdazubiarrak izan zezakeen —eta izango zuen ziurrenik!— kultura klasikoaren ezagutza. Arteetako batxilergoa lortzeko beharrezkoa izan bazuen ere, liburua idaztean beste batzuen bitartekaritzaz baliatu izan zela baieztatuko genuke.

Laburtzeko, beraz, esan genezake Senekaren eta beste autore klasikoen aipamenek honako ezaugarri hauek erakusten dituztela: a) oro har, literatura unibertsaleko topiken saila osatzen duten aipamenak dira; hortaz, aski ezagunak eta *loci* gehienetan aurkitzeko modukoak. b) Bestelakoak testuetan azaltzen den filosofia-mezuaren kondentsatzaileak ohi dira.

Hori dela eta, Senekaren kasuan Axularrek aipatzeko hautatu pasarteak *Epistolen* bukaeretakoa eta dira. Berdintsu jokatzeko du *Naturalis Quaestiones* liburuaren aipamena egiten duenean, hots, elementu naturaletatik atera daitezkeen ondorio filosofiko-moraletatik —liburuaren bukaera aldetik, beraz— jasotzen du pasarte.

Beste modu batez esateko, *silva* edo *loci* izeneko liburuetan agertzeko modukoak izateaz gain, Senekaren kristautasunerako balioa aitzaki, Elizako Gurasoek, teologoek eta bestelako tratadistek beren obretan maiztxo aipatuak izan ohi ziren Urdazubikoak dakartzanak.

Beste autore klasiko gehienen kasuan ere, “fossilizatuegiak” dirudite haien “erranak”, “debozinozko” edozein liburutan agertzeko bezalakoak normalean.

Horren arabera, beraz, balirudike *Gero* erredaktatu bitartean Axularrek bide guztiak izan zituela irekita klasikoen obrak zuzenean irakurri edota kontsultatzeko beharrik ez izateko. Hipotesi honek, jakina, ez luke baztertuko Senekaren eta beste autore klasikoen obrarekin izandako kontakturik, irakurketa sistematikoa eta erabilpen zuzena baizik. Hau da, klasiko zenbaiten ezagutza gaztetako eta arte-batxilergoko klaseetan edota bestelako egileen bitartez eginga izango zuen urdazubiarrak, baina liburua ontzeko orduan bestelakorik erabili zuen.

Hipotesi horren egiantzekotasunaren arrazoirik larriena “topikoetako” Seneka agertzean letzake nagusiki, Seneka eta beste autore “jentil”-ak jakina. Senekari dagokionez —eta berau da jarraipen honetarako egilerik interesgarriena, ez bakarrik aipamen kopuruagatik, baizik eta kristauak sistematikoki aprobetxatzen zuten filosofia koherente bat ere luzatzen duelako—, *Gero* guztian eskaintzen zaigun ikuspegi estoikoa arrunta da, esku-liburuetakoa, esaldi eta ideia batzuetara mugatzen dena; eta zer esanik ez dago Ovidio eta bestelako autoreen ikuspuntu “vitalista”-z eskaintzen zaigunaz.

Ikusten den bezala, topikoegia da Axularrek klasikoetatik iragazitako guztia, topikoegia eta, ondorioz, ezagunegia. Ez bide zen haiengana, haien obretara hurbildu beharrik haien berri izateko, beraz.

## BIBLIOGRAFIA KLASIKOA

GELIO, A.: *Noches áticas*, Madrid, 1921.

AXULAR: *Guero*, Bordele, 1643 (facsimilea: Bilbo, Euskaltzaindia, 1988).

GRANADA, Luis de: “Retórica Eclesiástica o de la manera de predicar”, in *Obras del V.P.M. Fray Luis de Granada*, III, Madrid, Imprenta de la Publicidad (BAE XI), 1945, 488-642 or.

—: *Collectanea Moralis Philosophiae, in tres tomos distributa: quorum primus selectissimas sententias ex omnibus Senecae operibus, Secundus ex moralibus opusculis Plutarchi, Tertius clarissimorum principum & philosophorum insigniora apophthegmata ... complectitur*. Olisippone, 1571.

PLUTARCO: *Vidas paralelas*, Madrid, 1920.

SENECA: *Opera omnia*, editio stereotyopa, Lipsiae, 5 vol., 1832.

- : *Naturales Quaestiones*, 2 vol. (Carmen Codoñer Merino-k itzulia eta berrikusia) Madrid, CSIC, 1979.
- : *Epístolas morales a Lucilio*, Ismael Roca Meliá-ren itzulpena, Madrid, Gredos, 1986.
- TERRONES DEL CAÑO, Fco.: *Instrucción de Predicadores*, Granada, 1617, [orain: Olmedo (ed.) 1960, Madrid, Espasa-Calpe].
- VENEGAS, Alejo: *Agonía del tránsito de la muerte*, Alcalá, 1565 (egun in Menéndez y Pelayo (zuz.), *Escritores Místicos Españoles*, I tom., Madrid, Casa Editorial Bailly / Baillièrre, 1911).

## BIBLIOGRAFIA OROKORRA

- ASKOREN ARTEAN (1993): *Fray Luis de Granada. Su obra y su tiempo*, Actas del Congreso Internacional. Granada, 27-30 Septiembre 1988, 2 tom. (A. García del Moral eta U. Alonso del Campo-k apailatutako argitalpena), Universidad de Granada, Granada.
- ASENSIO, Eugenio (1981): “Ramismo y crítica textual en el círculo de Fray Luis de León. Carteo del Brocense y Juan de Grial”, in A.A., 1981, *Academia Literaria Renacentista. I Fray Luis de León*, Salamanca, Universidad de Salamanca, 47-76.
- BATAILLON, Marcel (1979): *Erasmus y España*, Madrid, FCE. Farinelli, Arturo, 1908, *Dante e la Francia. Dalletà media al secolo di Voltaire*, 2. lib., Milano, Ulrico Hoepli.
- BLÜHER, K.A. (1983): *Séneca en España. Investigaciones sobre la recepción de Séneca en España desde el siglo XIII hasta el siglo XVII*, Madrid, Gredos, 1983.
- CARRERAS Y ARTAU, Tomás, eta CARRERAS Y ARTAU, Joaquín: *Historia de la Filosofía española. Filosofía cristiana de los siglos XIII al XV*, II. tom., Madrid, 1943.
- CURTIUS, Ernst Robert (1976): *Literatura europea y Edad Media latina*, 1 eta 2, Madrid, F.C.E. (1. ed.: *Europäische Literatur und lateinisches Mittelalter*, Berna, A. Franke, 1948).
- GARCIA BERRIO, Antonio (1977): *Formación de la teoría literaria moderna, I. La tópica horaciana en Europa*, Madrid, Cupsa.
- (1980): *Formación de la teoría literaria moderna, II. Teoría poética del Siglo de Oro*, Murcia, Ed. Publi. Universidad.
- HERRERO SALGADO, Félix (1993): “La *Rhetorica ecclesiastica* de fray Luis de Granada y las retóricas cristianas del Siglo de Oro”, in A.A.: 1993, 265-302.
- MITXELENA, K. (1954): “Axular. Gero”, *Egan* 2-4, 39-41 (Orain P. Altunaren edizioan: Mitxelena, Koldo, 1988, *Euskal Idazlan Guztiak II*, Donostia, Etor, 39-42).
- (1960): *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid, Ediciones Minotauro.

- (1981): “Euskal Literaturaren kondairarako oinarriak” in A.A.: *Euskal Linguistika eta Literatura: bide berriak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak.
- NARBAITZ, P. (1956): “Axularr-en egunean elizako predikua”, *Gure Heria*, 225 or.
- OLMEDO, Félix G. (1960) “Prólogo”, in TERRONES DEL CAÑO: *Instrucción de Predicadores*, Madrid, Espasa-Calpe, IX-CLVI or.
- REU, Martine de (1993): “Divers chemins pour étudier un sermon”, in Hammesse, J. & Hermand, X. (ed.): *De l'homélie au sermon. Histoire de la prédication médiévale*, Louvaine-la Neuve, Université Catholique, 331-340.
- URKIZU, P. (1989): “Jon Juaristi, Literatura Vasca, «Historia Crítica de la Literatura Hispánica» 29, (Taurus, Madrid 1987)”, *Hegats, Literatur aldizkaria* 1, 1989, 19-24.